

VICENTE AMEZAGA ARESTIREN OMENEZ (*)

Getxo, 1988-VIII-11

Ricardo Badiola Uriarte

I. AGURRA

- Agur Jabier Sarria, Getxoko Alkate jauna.
- Agur Mirentxu, Arantzazu eta Begoña Amezaga.
- Agur Iñaki Zarraoa, Eusko Jaurlaritzako Kultur Kontseilari ordea.
- Agur Josu Legarre, Eusko Jaurlaritzako Euskara Arazoetarako Zuzendaria.
- Agur Carlos Garaikoetxea, Lehendakari ohia.
- Agur Martin Ugalde, euskaltzain urgazle eta Bingeren adiskide mina.
- Agur Miguel Pelaez de Orozko jauna.
- Agur Amezaga familia.
- Agur Jon Amezaga, Bingeren loba eta ekintza honen bultzatzaile eta antolatzailea.
- Agur jaun-andere, ume edo haur edo seinok.

Nik neuk baino hobeto ezagutu zenutenok mintzatu behar zintzen hemen, baina Bingen izan zenaren Jon Amezaga lobak joan den astean deitu eta eskatu zidan zerbait azaltzeko beraren osabari buruz.

Getxon bizi naizenez eta hilabete honetan inor aurkitzea zaila denez, hemen nauzue zerbait azaltzeko asmoz. Nik Bingen Amezaga nor izan zen oso gutxi dakit, euskaltzain urgazlea izendatu zutela 1957. urtean, Venezuelan zegoela, zenbait liburu idatzi zituela,...

(*) Getxoko Udalak plaza bat eskaini dio *–Harriluze plaza–* eta bertan, haren omenez, soina ere eraiki dio Jose Luis Butron zizelkariak.

Bingeni buruz zertzelada gutxi eskainiko dut, nire ondoren datorren Mirentxu haren alabak eskainiko baitigu.

Vicente Amezaga 1927. urtean, Valladoliden, Deretxon lizentziatu zen, nahiz eta gero sail edo eremu honetan aritu ez, eta, bestalde, titulu horrek atzerrian baliorik izan ez. 1936. urtean, lehen Euskal Gobernua izendatzean, Euskadiko Oinarrizko Heziketako Zuzendari Nagusi izendatu zuten. 1937.eko Ekainaren 14ean ezkondu zen Mercedes Iribarrekin. Gero berauek bost seme-alaba izan zituzten. Hauetatik zaharrena, Mirentxu, gero mintzatuko zaiguna, berau, beste seme-alaben antzera, atzerrian jaioa, Parisen, hain zuzen.

II. NOR DUGU BINGEN AMEZAGA ARESTI?

Getxon jaioa, baina gurasoek ez zioten euskararik irakatsi. Hamazazpi urte zituelarik, Euskal Herriko seme izateaz erdi lotsaturik gure hizkuntza ikasi, sakondu eta aztertu zuen, gero beste hizkuntzekin erkatzeko.

— 1937.eko Maiatzaren 24ean 500 sein edo ume euskaldunen buru eginez, atzerrira jotzen du. Sei hilabetez, Donibane Garaziko haurtzaindegiko zuzendari izanik.

— 1937.eko Abenduan Bartzelonara jotzen du Euskal Justiziako Ministriaria zen Jesus Mari Leizaola jaun ospetsuaren ordezkari erara. Bertan sei hilabete irauten du. Jarraian Parisera itzultzen zaigu, Jesus Mari Leizaolaren idazkari modura.

Handik Ingalaterrara ume-euskaldunen koloniak ikustatzera zenbait bidaia egiten ditu.

Honela, 1938.eko Maiatzaren 7an jaio zen Mirentxu, haren alaba zaharrena. Gero, 1939.eko Irailaren 2an, bigarren alaba, Begoña. Biok Parisen. 1941. urtean Ameriketarantz jotzen du. 1943. urtean, Argentinan, Arantzazu, haren hirugarren alaba jaio zen. Ondoren, 1945.ean Uruguayan, Bingen semea jaio zitzaion eta 1947.ean, Xabier, azken semea berau.

III. BINGEN AMERIKETAN

Labur-labur hiru lau zertzelada adierazi nahi nizueke, Euskal Herriko seme izanik gure kulturaren ezaugarri Bingenek Ameriketan zer egin zuen adieraziz, hots:

— Lehen eta behin “Instituto Americano de Estudios Vascos” delakoraren sortzaile kidea dugu.

– Montevideoko Unibertsitatean, Euskal Kulturaren katedra sortzen du, bertan 1947.etik 1955.arte irakasle izanik. Hiri berean Goi Mailako Kultura Institutuan euskara irakasten aritzen zaigu. *El Plata* egunkarian askotan idazten du eta baita beste zenbait egunkari eta aldizkaritan ere.

– 1957.urtean euskaltzain urgazle izendatu zuten. Izendapen honek izugarrizko poztasuna ematen dio eta euskararen alde lan egiteko bultzada eskaini. Poztu eta gogoia ezarten dio izendapen honek.

– 1969.eko Otsailaren 4ean, Caracasen hil zitzaigun gure Bingen. Goian Bego Bingen Amezaga.

IV. BINGENEN EMAITZA

Bingen ezagutu zutenek/ebenek hiru eremutan banatzen dute haren lana:

– Lehen eta behin, hizlari fina, bertan erraztasun haundikoa eta mezua bizitzarekin bat egiten zekiena. Hitza, mezua eta bizitza beti elkartzuz.

– Bigarren, hizkuntzekiko ikasle amorratua. Hamazazpi urterekin euskara ikasi zuen, bai ondo ikasi ere, gero beste hizkuntzetatik hainbat itzulpen eginez. Hemen dugu gure Bingen eredu. Gaur egun ere haren ereduak bizi-bizirik dirau, euskaldun izateko euskara jakin behar dugu. Euskara ikasi eta irakatsi, bai agintari, politikari, andere, gizon eta umeek. Euskara barik ez dugu Euskal Herririk. Guk geuk ez badugu euskararik egiten, nork egingen du?

– Eta azkenik, gure Bingen idazlea izan zen. Hemen bi eremu bereiztu ahal ditugu, hots, lehena, historiari lotua: lau liburu argitaratuak eta hainbat eta hainbat idazlan aldizkarietan sakabanatuak eta beste batzuek galduak, gero ikusiko dugunez.

Bigarrena, olerkaria izan genuen. Ezagutu zutenek, aditzen dutenez, olerkari fina, bihotz haundikoa, edertasunaren miresgarria. Begira zer dioen honelako batek:

“Edozein lorek bere usaia;
txori bakoitzak bere soiñua:
aberri guziak beren izkuntza.
Euskera, gure odolaren urriña
ta gure abendaren abots zar ta
sendoa da.
Bizi dedilla beti gure biotz-ezpainetan.”

V. BINGENEN GOGOAK

Bingenen gogoetariko bat zera izan zen, alegia, 1936.eko gudan, eskoletan ari ziren umeak leherketetako uhagek edo bonbek ez zitzatela hil edo desargetu. Bizkai osoan ibili zen umeentzat babeslekuak aurkitzen. Donibane Garazin izan zuen gazteluan 500 umeri babeska eskaini zien: lehenago Getxoko Udal Epailea izan genuen herri mailan hautatua. Gizon zintzo, apal, arduratsua, baina ikusmenez nahiko eskas, miopia handia zeukan eta.

– Vicente Amezagak hamazazpi urterekin euskara ikasi eta hogeirekin “Euskal esnalea” deritzan saria irabazi zuen, Cervantesen *El Licenciado Vidriera* itzulirik.

– Bingenek, 1955. urtean, Venezuelan, Martin Ugalde ezagutzen du eta bion artean adiskidetasun handia izan zutela entzuna diot gure Martin Ugalde idazle ospetsuari. Bingenek ezaguterazi zion Martini, Kepa Enbeita bertsolaria eta baita beronen lana ere.

– Bingen ezagutu zutenek, diotenez, izakera alaia eta itxaropentsua zeukan. Gizon langilea eta aspergabea. Mercedes Iribarren, beraren andere edo emaztearen laguntza etengabea izan zuen eta seme-alaben atxikimendu zintzoa ere bai.

– Caracasen izanik ikerketa liburu zenbait argitara eman zituen “Jhon Boulton” Fundazioko sortzaile eta kidea zelarik.

VI. BINGEN AMEZAGAREN LANAK

Berarentzat euskarak edozein gai eta goi mailako azalpenak egin eta azaltzeko balio zuen. Honela ba, euskal kulturaren goi mailako diren “Orixe” edo Nicolas Ormaetxea, Jokin Zaitegi, Andima Ibiñagabeitia jaunen kidea dugu gure Bingen Amezaga.

Bingenek buruturiko lanak honela laburtuko genituzke, alegia:

1. Itzulpenak

- 1.1. Cervantesen *El Licenciado Vidriera*.
- 1.2. Oscar Wilderen *The Ballad of Readin Gaol*.
- 1.3. Esquiloren *Prometeo encadenado*.
- 1.4. Ciceronen *La amistad, de Senectute*.
- 1.5. Plinioren *La Vejez, Epistolarun*.

- 1.6. Goetheren *Lur miña*.
- 1.7. Shakespeareren *Hamlet*, berau argitaratua, eta *Macbeth* eta *Julio Cesar*, argitaragabeak.
- 1.8. Descartesen *Discours de la méthode*.
- 1.9. Boccaccioren "Tres anillos" *Decameronetik* jasoak.
- 1.10. Bolivarren *Carta de Jamaica*.
- 1.11. Iturralde Suiten *El ruiseñor de Errotazuri*.
- 1.12. Juan Ramón Jimenezen *Platero y yo*.

Bingen, ezer izan bazen, olerkaria izan genuen. Eta sail honetan hurregook azpimarratu behar genituzke, alegia:

Omar Khayyam persiar olerkariaren *Omar Khayyamen bertsoak*, *Enbeitari omenaldia*, Getxoko herriari eskainitako zenbaitzu eta *Arzubiko bertegiari kantua*.

Euskaratik gaztelaniara itzuli zuen Nicolas Ormaetxea "Orixe"ren *Euskaldunak*, oraindik argitaratu gabekoa.

2. Euskal kultura eta Venezuela

Eremu honetan aipatzekoak hurrengook ditugu, alegia:

2.1. *Hombres de la Compañía Guipuzcoana de Caracas*: Pedro José de Olabarriaga, José de Iturriaga, José de Amenabar, Fermín de Sansineña, Pedro de Berastegui, Pablo de Orendain, Antonio de Arbide, eta abar aipatzen dituelarik.

2.2. *Jesús Muñoz Tébar* (1965), Edgar Pardo Stolck doktorearen laguntzarekin idatzia.

2.3. Bingen Amezaga eta Edgar Pardo Stolck-ek: *Vicente Antonio de Antonio de Icuza, Comandante de Corsarios* (1967).

2.4. *El General Juan Uslar* (1966).

2.5. *El elemento vasco en el siglo XVIII venezolano* (1967.ean). Liburu hau Pedro Grases, Bingenen adiskide mina zen katalanari eskainia dugu. Argitarapen honetan hainbat eta hainbat euskaldun azaltzen zaizkigu, hots: "Abasolo, Choperena, Echeverria, Elizalde, Gorriaran, Irunberri, Landaeta, Orderiz, Saldarriaga, Unda, Ustariz, Zorondo, Zurbaran. Adibide erara: *Oyarzabal, Bernardo*. Natural de Hernani, Guipúzcoa, hijo de D. José Antonio de Oyarzabal y M. Micaela Lizarraga. Es enterrado en la iglesia de Puerto Cabello el 17 de agosto de 1804.

Archivo parroquia Pto. Cabello, Entierros. Años 1803-1831”.

Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1979. Volumen III, página 301.

2.6. *El hombre vasco* (1967) Ekinek Buenos Airesen argitaratua eta gero Martin de Retanak, Bilbon, 1979. urtean, berrargitaratua.

Liburu honetan aipatzen ditu besteak beste, Gonzalo de Berceo, Bernardo d'Etxepare, Francisco de Vitoria, Fray Juan de Zumarraga, Sabino Arana y Goiri, Pedro de Enbeita, Jesús de Galíndez, Nicolas Ormaetxea “Orixe”, José Antonio de Aguirre Meabe.

Begira zer dioen euskarari buruz 78. orrialdean:

“El idioma, en general, es un organismo vivo. Nace de la vida y ésta lo alimenta. Pero la lengua de cada Pueblo es el archivo de su vivir y el espejo fiel de su pasado. Pudiéramos decir que él que es una invención de doble efecto pues lo crea el pueblo como instrumento de comunicación y de registro de sus experiencias vitales, pero he aquí que, después de que por generalización y por abstracción fija conceptos y traza normas de expresión, lo que al principio fue creación se impone después a su mismo creador como algo que forzosamente debe influir en la concepción de sus pensamientos y en el modo de expresarlos, sin que, por otra parte, cada pueblo renuncie nunca a sus derechos de creador, como lo hace constar en la continua aunque casi imperceptible transformación que en el curso de cada generación ésta impone en el fluir vital de su lenguaje”.

Honela ba, labur bilduz zera adierazi ahal dugu, alegia, egia esan, Bingenek kulturaren alor gehienak ikutzen dituela bere liburu eta idazkietan, hots:

A) *Biografi mailan*: G. Humboldt, Elcano, Iparragirre, Arturo Campión, San Ignacio de Loyola, Fco. de Xabier, Andres de Urdaneta, Jose de Cadalso, Tellagorri, Castelao, Leizaola, Miguel Pelay Orozco, Martin de Ugalde,... eta abar.

B) *Venezuelako gaiak*: Los vascos en la fundación de Caracas, los “gens” Caraqueña de los Landaeta, Belford Hinton Wilson, El Bilbao de Bolivar, El General Juan Uslar, Juan Muñoz Tebar, Madariaga y Bolivar...

C) *Kultura eta nortasuna*: Plinio el joven a través de su epistolario, grandeza y miseria de la gramática, la Unesco, himno a la esperanza, derechos del hombre,...

D) *Euskal askatasunaren burruka*: Pérdida de los fueros vascos, política y patriotismo, la realidad española bajo Franco, Aberri Eguna, Euzkera y patria, hacia la libertad,...

E) *Euskal Unibertsitateaz*: Hurrengo hitzaldiok zintetan grabaturik daude:

— Kepa Enbeita, José Antonio Aguirre, El Señorío de Biskaia, los vascos en la literatura castellana, la casa vasca, Bernard d'Echepare, el escudo vasco, la lengua euzkera, Bidasoa, Oración a San Miguel, el arte vasco, los apellidos vascos, Sinfonía de Getxo, Pedro de Axular, El Príncipe de Viana, Juan de Zumárraga, la segunda Guerra Carlista, la poesía épica y popular, la lírica, las “pastorales”, el periodismo, el cuento, la novela, artes plásticas, el euskera lengua de cultura,... eta abar eta abar.

Beste barik, barkatu gaizki edo erdizka esanak eta mila edo anitz esker entzuteagatik.

Agur. Esan dut.